BESTELAKO XEDAPENAK

GARAPENERAKO LANKIDETZAREN EUSKAL AGENTZIA

219

EBAZPENA, 2011ko azaroaren 10ekoa, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendariarena, Asociación Izan a favor de la Infancia y la Juventud erakundeak 2010. urterako euskal lankideei laguntzak emateko deialdiaren barruan aurkeztutako proiektua gauzatzeko diru-laguntzaren zati bati uko-egiteko Rocío García de las Heras lankideak egindako eskaera onartzen duena.

2010eko irailaren 21eko Garapen Lankidetzarako zuzendariaren Ebazpenaren bidez, Asociación Izan a favor de la Infancia y la Juventud diru-laguntza eman zitzaion Rocío García de las Heras lankide boluntarioak gauzatuko zuen proiektua ordaintzeko (KOP-2010P2/0002).

Erakunde horrek, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziari 2011ko ekainaren 21ean bidalitako komunikazioan, dagoeneko emandako diru-laguntzaren zati bati uko-egiteko eskabidea aurkeztu zuen, espedientean jasotako arrazoiengatik.

Garapena eta Lankidetza Sustatzeko Fondoaren kargurako euskal lankideei diru-laguntzak arautzen dituen maiatzaren 31ko 124/2005 Dekretuaren 11. artikuluak ezarritakoaren arabera, lankide boluntarioaren lana funtsean alda dezakeen edozein gorabehera gertatzen bada, diru-laguntza jaso zuen erakundeak berehala jakinarazi beharko dio Garapen Lankidetzarako Zuzendaritzari. Hortaz, Garapen Lankidetzarako zuzendariari dagokio baldintzak aldatuko dituen Ebazpena ematea, eta hala badagokio, emandako diru-laguntzaren zenbatekoak berregituratuko dira, diru-laguntza horiek emateko ezarritako mugak aplikatuz, eta pertsona, erakunde eta entitate onuradunek neurriz kanpo jasotako zenbatekoak itzuli egin beharko dituzte.

Hala ere, proposatutako aldaketak onartzeko eskumenari dagokionez, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia sortu, arautu eta jardunean jarri ondoren (ekainaren 19ko 5/2008 Legea, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia sortu eta arautzen duena; martxoaren 23ko 95/2010 Dekretua, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren antolaketa eta funtzionamenduko erregelamendua onartzen duena; azaroaren 23ko 310/2010 Dekretua, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren jarduerak abiaraztea arautzen duena), aipatutako eskumena eta, oro har, laguntza horiek kudeatzeko behar diren ebazpenak ezartzeko Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren Zuzenzariari dagokio.

Horren ondorioz, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Asociación Izan a favor de la Infancia y la Juventud erakundeak 2010. urterako euskal lankideei laguntzak emateko deialdiaren barruan aurkeztutako proiektua gauzatzeko dirulaguntzaren zati bati uko-egiteko Rocío García de las Heras lankideak egindako eskaera onartzea.

Horren ondorioz, 3.678,55 euroko hirugarren ordainketa (justifikatua dagoen zatia) egingo da. Halaber, hirugarren ordainketari zegokion gainontzeko zatia (5.320,83 euro) eta laugarren ordainketari dagokion agindua (8.999,38 euro) baliorik gabe uzten dira.

Bigarrena.– Ebazpen honen aurka, gorako errekurtsoa jarri ahal izango zaio Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren lehendakariari, hilabeteko epean, argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera kontatzen hasita. Gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu eta hiru hilabete igarota oraindik ez bada ezer ebatzi, errekurtsoa ez dela onartu pentsatu beharko da, eta administrazioarekiko auzietarako bidea irekiko da.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko azaroaren 10a.

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendaria,
MARTA ARES GODOY.